

Zure mundua, gure erreferentzia

1870eko irailaren 12an Institutu Geografikoa sortu zen eta bere lehen zuzendaria Carlos Ibáñez e Ibáñez de Ibero jenerala izan zen. Erakunde berriak bere aitzindaria zen Estatistika Batzorde Orokorren tresnak, langileak eta eginbeharrak jaso zituen oinordetzan. Hasierako misioa izan zen "Lurraren forma eta dimentsioak zehaztea, hainbat ordenatuko triangulazio geodesikoak, doitasun- nibelazioak, triangulazio topografikoa, maparako eta katastrorako topografia, eta nazioarteko pisu eta neurri motak zehaztea eta kontserbatzea", besteak beste.

Bere historian zehar, zenbait antolaketa-erreformen xede izan zen eta horren ondorioz eskumenak aldatuz joan ziren, batzuetan zabalduz, eta, beste batzuetan zentro espezializatu berrietara transferituz, hala nola Estatuko Meteorologia Agentzia, Estatistikako Institutu Nazionala, Katastroko Zuzendaritza Nagusia eta Espainiako Metrologia Zentroa (egungo izenak dira).



MTN25 sortaren 807-I orri-zatia

2020an, Geografia Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Nagusiak, egungo Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioari atxikiak, ingeniariaritz geografikoaren mende eta erdi betetzen du, eta bidean lurraldearen eta espazioaren behaketa, neurketa, azterketa, ebaluazioa eta irudikapena garatu ditu.

Espainiako gizarteak eraldaketa sozial, ekonomiko eta teknologiko sakona izan du azken hamarkadetan, eta, harekin batera, Institutu Geografiko Nazionala, erakunde zientifiko-tekniko gisa, Astronomia, Geofisika, Geodesia, Lurralde Behaketa, Kartografia edo informazio geografiko ekoizpena eta hedapenaren esparruetan.


Eraldaketa horrek, halaber, gaur egun Geografia Kontseilu Goreneko Idazkaritza Teknikoa eta Gobernuaren organo aholku-emailea den aldetik, bere gain hartu du Sistema Kartografiko Nazionalaren babesa eta sustapena, Informazio Geografikoaren Zentro Nazionala (IGZN, gazteleraz CNIG) erakunde autonomoarekin batera; izan ere, gure herrialdea arau-esparru horretaz hornitu da kartografiaren eta informazio geografikoaren arloan administrazio publikoen arteko koordinazioa eta lankidetzaz gauzatzeko.



Yebeseko Behatokia

2020an zehar, Institutuko profesionalek, erakundearen kapital preziatuenak, ekitaldi eta jardunaldi ugari eskaintzen dizkiete herritar guztiei, bere 150. urteurrenean omenaldi gisa, erreferentziazko erakunde espainiarraren kide izateaz harro.

Zalantzarik gabe, bere historian zehar bertan zerbitzatu izan duten langileei omenaldia.



El Hierro uharteko sismograma

150. urteurrena
1870-2020

2020an zehar, 150. urteurrenarekin lotutako hainbat jarduera eta ekitaldi garatuko dira, eta horiei buruzko informazio zehatza aurreratuko da webgune honen bidez:

www.ign.es/web/ign/portal/150-aniversario

Eta sare sozialetan:



@IGNSpain



@IGNSpain



IGNSpain



IGNSpain



IGNSpain

Instituto Geografiko Nazionala
Informazio Geografikoaren Zentro Nazionala

General Ibáñez de Ibero 3
91 597 95 14, faxa: 91 597 97 73
Madrid, 28003
consulta@cnig.es
www.ign.es



1870



Estatistika Zuzendaritza Nagusian Geografia Institutua sortu zen (irailak 12), Sustapen Ministerioaren barruan, Geodesia, Nibelazioa, Kartografia, Topografia, Katastro eta Pisu eta Neurrietan eskumenak zituen zientzia gune gisa.

1875



Mapa Topografiko Nazionalaren lehen orria argitaratu zen, 1: 50.000 eskalan (559-Madrid)

1880



Espainiako Lehen Erreseina Geografiko eta Estatistikoa hasi zen (Espainiako Atlas Nazionalaren aitzindaria), 1888an amaituko zena.

1909



Toledoko Behatoki Geofisikoan nazioarteko lehen estazio sismikoa instalatu zen.

1910



Institutu Geografikoaren Inprimategi Ofiziala sortu zen.

1922



Institutuaren hirugarren eta egungo egoitzaren lehen harria jarri zen Madrilgo General Ibáñez de Ibero kaleko 3. zenbakian, Alfonso XIII erregea buru izan zuen ekitaldi batean (uztailak 7).

1956



Sonsecako Estazio Sismologikoaren ezarpena, saiakuntza nuklearrak detektatzeko eta egiaztatze sismiko berezia dena (gaur egun, Nazio Batuen CTBTO Entsegu Nuklearren Debeku Osoaren Tratatu Zaintzeko Nazioarteko Sistemaren Lehen Estazioa).

1973



Yebes (Guadalajara) eta Calar Alto (Almería) behaketa astronomikoetarako zentroak sortu ziren.

2004



EDEA, Espainiako Datu Espazialen Azpiegituraren geoataria aurkeztu zen bere lehen bertsioan, CNIGek kudeatu eta koordinatuta. IGNk bere gain hartzen ditu zaintza eta alerta bolkanikoen eskumenak.

2003



REGENTE izeneko Teknika Espazialez behatutako Sare Geodesiko Nazionalaren proiektua amaitzea.

2001



REGENTE izeneko Teknika Espazialez behatutako Sare Geodesiko Nazionalaren proiektua amaitzea.

1997



GNSS Estazio Iraunkorren Sare Geodesiko Nazionala ezartzen hasi zen. Hurrengo urtean, IGNren Denbora Errealeko Posizionamendu Zerbitzua garatzeko euskarria izango da.

1993



Behe Ordeneko Sare Geodesikoaren (ROI) behaketa, kalkulua eta konpentsazioa amaitu ziren, eta ED50 erreferentzia-esparru geodesikoa bihurtu zen (egungo ETRS89 erreferentzia-esparruarekin aintzinekoa)

1988



Informazio Geografikoko Zentro Nazionala sortu zen (IGZN eta gazteleraz CNIG), izaera komertzialeko erakunde autonomo gisa, IGNren Zuzendaritza Nagusiaren bidez Herri Lan eta Garraio Ministerioari atxikita (Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 37/1988 Legea, 1989, 122. artikulua).

1986



Kartografia Antolatze 7/1986 Legea argitaratu zen. Lege horrek Institutu Geografiko Nazionalari esleitzen dio oinarriko kartografia eta lurreko deribatuen eraketa eta kontserbazioa. Ministroen Kontseiluak Espainiako Atlas Nazionala egiteko agintzen dio IGNri.

2005



Base Topografiko Nazionala hasi zen, BTN25. Defentsa, Sustapen eta Ingurumen ministroek Espainiako lurraldearen estaldurak satelite bidezko irudiekin lortzeko protokoloa sinatu zuten IGNn Lurraldea Behatzeko Plan Nazionalaren esparruan. Asturiasko printzeek Yebeseko (Guadalajara) Astronomia Zentroko 40 metroko irrati-teleskopioa inauguratu zuten.

2007



CNIG erakundearen estatutuak ezartzen dituen eta Espainiako Erreferentzia Ofizialeko Sistema geodesikoa eta Kartografia Sistema Nazionala arautzen dituzten errege-dekretuak argitaratu ziren, Estatuko administrazio guztien arteko lankidetzaren eredu berri gisa, kartografiaren eta informazio geografikoaren arloan.

2010



Espainiako informazio geografikoko azpiegiturari eta zerbitzuei buruzko 14/2010 Legea (EIGAZL) argitaratu zen, eta IGNri esleitu zaio Geografia Kontseilu Gorenaren batzorde iraunkorren eta lurralde-batzordeen lehendakaritza, bai eta batzorde horren idazkaritza teknikoa ere.

2013



Ministro Kontseiluak 2013-2017ko Lehen Kartografia Plan Nazionala onartu zuen, IGNk koordinatuta. "Jorge Juan", 13,2 m-ko lehen irrati-teleskopioaren inaugurazioa Yebesko Astronomia Behatokian (Guadalajara) dagoen Estazio Geodinamikoen eta Espazialen Sare Atlantikoaren (EGESA) proiektu hispaniar-portugaldarraren barnean.

2014



IGNk bere gain hartzen du Copernicus (Copernicus Land) programa europarraren Lurralde Zerbitzuaren koordinazioa Espainian.

2018



IGNk XXI. mendeko Espainiako Atlas Nazionala (ANEXXI) argitaratzen du 38 erakunde zientifiko eta akademikoren (ANEXXI Sarea) lankidetzaz osatuta. Espainiako Geografia Elkarteen Komunikazio Saria jaso du, 2019an Felipe VI erregeak eman zuena.

2019



IGNk zulo beltz baten itzalaren lehen irudia lortzen parte hartzen du. Lurraren lehen ingurabidearen V. mendeurrenari buruzko erakusketa kartografikoa IGNren egoitza nagusian.